

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5176

*2862/2025 EBAZPENA, azaroaren 7koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Amaia González González andrea kentzen baita Lasarte-Usurbilgo LMAUko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren kargutik, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen otsailaren 4ko 123/2021 Ebazpenaren bidez, Amaia González González andreaki Lasarte-Usurbilgo LMAUko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak esleitu zitzaizkion Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan (2021eko martxoaren 3ko EHAA, 45. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Amaia González González andrea Lasarte-Usurbilgo LMAUko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren kargutik kentzea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko azaroaren 7ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritza ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia / San Sebastián, 2025eko azaroaren 7a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

E.B. (1297/2025 Ebazpena, uztailaren 24koa).

Langileen zuzendaria,  
MARÍA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.